



## **DBH 2**

### **ONGIZATE FISIKOA ETA EMOZIONALA**

---

#### **Ikasgaiaren deskribapen laburra**

Irakasgai hau praktikoa da eta parte-hartzean oinarritua dago. Heziketa Fisikoaren arloan landutako alderdiak sakondu, ongizate fisikoa, emozionala eta soziala indartzea du helburu nagusia.

#### **Eduki esanguratsuenak**

- Ongizate fisikoa: Ariketa fisikoak pertsonaren osasunean eta garapen integralean dituen ondorio positiboak.
- Ongizate emozionala: Autokontrola, tolerantzia eta kiroltasuna, emaitzak lortzeko zutabe. Arnasketa eta erlaxazioa, emozioen erregulazioarekin duten lotura.
- Gizarte-ongizatea: Kolaborazioa eta kooperazioa taldeko ikaskuntza-zereginetan. Konpetentzia motorraren maila guztiekiko eta aniztasunaren balioarekiko errespetua.

**Oharra:** DBH1en, DBH2n edo DBH3n bakarrik egin ahal izango da.

### **TEKNOLOGIAREN ETA DIGITALIZAZIOAREN HASTAPENAK**

---

#### **Ikasgaiaren deskribapen laburra**

Teknologiako eta Digitalizazioko Hastapenak ikasleei teknologia eta digitalizazioaren oinarriak modu praktikoa ikasteko aukera eskaintzen die. Tailerlean lan eginez, problemak ebaztea, taldean aritzea eta tresna digitalen erabilera bezalako konpetentziak lantzen dira. Gainera, pentsamendu konputazionala eta trebetasun sozio-emozionalak garatzea sustatzen da, erronka teknologiko eta sozialak modu integralean aurre egiteko.

#### **Eduki esanguratsuenak**

- Problema ebaztea: Estrategiak, teknika mekaniko eta elektriko sinpleak, eta segurtasun-arauak.
- Komunikazioa eta zabalkundea: CAD diseinuak (2D eta 3D) eta dokumentazio teknikoa sortzea.
- Pentsamendu konputazionala: Algoritmoak eta blokekako programazioa.
- Ikaste-ingurune digitala: Gailu digitalen erabilera, konfigurazioa eta edukiak seguru gordetzea.
- Zentzu sozio-emozionala: Talde-lana, inklusioa, eta emozioen kudeaketa.

**Oharra:** DBH1 edo DBH2n egin ahal izango da, ez bietan.



## PENTSAMENDU AUTONOMO ETA KRITIKOAREN HASTAPENAK

---

### **Ikasgaiaren deskribapen laburra**

Jakintzagai honetan hausnarketa pertsonala eta taldeko eztabaida landuko dira. Horretarako egungo munduak aurkezten dizkigun hainbat arazo etiko, politiko eta teknologiko aztertuko ditugu, betiere ikasleen interesak kontuan hartuz eta metodologia kooperatiboak erabiliz. Idatzizko testuak (artikuluak, berriak...) eta ikus-entzunezko materialak (dokumentalak, bideo laburrak, filmak...) abiapuntutzat hartuta, ikasleen pentsamendu kritikoa eta autonomoa garatuko dira: informazioaren fidagarritasuna egiaztatuz, ebidentziak bilatuz, zalantza eginez eta arrazoiketak ongi eraturaz.

Ikasleek bizi duten mundu aldakorrari buruz gogoeta egin eta errealitatearen ikuspegi zabalago bat eskuratzea izango dira jakintzagaiaren helburu nagusietako batzuk. Aniztasunari errespetua eta jarrera enpatikoa bultzatzea ere ardatz garrantzitsuak izango dira.

### **Eduki esanguratsuenak**

- Nortasuna. Pertsona eta gizartea.
- Aurrerapen teknologikoak eta etika.
- Etika eta politika. Demokrazia.
- Diskriminazioa.
- Giza eskubideak gaur egungo munduan.
- Ingurumenaren zaintza.

**Oharra:** DBH2 edo DBH3n egin ahal izango da, ez bietan.

## ATZERRIKO BIGARREN HIZKUNTZA (FRANTSESA)

---

### **Ikasgaiaren deskribapen laburra**

Maila honetan jarraituko dugu konpetentzia guztiak landuz: Ulermena (bai idatzitako testuekin hala nola Ahozkoarekin) eta Ekoizpena (Idatzizkoa eta ahozkoa).

Sei unitate lantzen ditugu ikasturtean zehar. Unitate bakoitzean Gramatika, hiztegia eta komunikazioa lantzen ditugu.

### **Eduki esanguratsuenak**

- Erreparasatu aurreko urtean emandakoa
- Ahozko eta idatzizko testu txikietatik informazio globala eta zehatza ateratzen jakitea
- Ohiko bizitzari buruz hitz egitea.

**Oharra:** Frantsesa aukeratzen duenak, 1. eta 2. mailarako aukeratuko du. Hala eta guztiz ere, 1.mailaren amaieran, familiak eskatuta edota ikastetxeak erabakita, posible izango da ikasgai hori uztea.



## IKUS-ENTZUN TAILERRA

---

### **Ikasgaiaren deskribapen laburra**

- Tailer honetan, ikasleek, lan praktikoak egingo dituzte; bakarka zein taldeka.
- Komunikazioa landuko da.
- Pelikulak ikusi eta aztertuko dituzte.
- Sorkuntza landuko da, beti ere, egileen eskubideak kontuan hartuz eta interneten segurtasuna zainduz.

### **Eduki esanguratsuenak**

Animazioaren aurrekariak (flip-book-a) eta historiako tramankuluak ezagutuko dituzte. Argazkiak aterako dituzte: animazioak egiteko Stop motion, teknika erabiliz. Bideoak egingo dituzte, sekuentziak ezberdinak, kamera mugimenduak eta ikuspuntuak aztertuko dute. Bideo-klipa bat sortuko dute.

**Oharra:** DBH1 edo DBH2n egin ahal izango da, ez bietan.

## ESKULANGINTZA TAILERRA

---

### **Ikasgaiaren deskribapen laburra**

Digitala den garai hauetan, eskua eta imajinazioa trebatzeko irakasgaia da hau. Estetika eta erabilgarritasuna, hala nola, berrerabilpena eta birziklapena lantzen diren bitartean ikasleek, hainbat lan burutu beharko dituzte, bakarka edo taldeka, teknika, material eta tresna desberdinak ezagutuz.

### **Eduki esanguratsuenak**

- Tetra-brick erabiliz karterak egin.
- Propagandako aldizkariekin paperezko ontziak eta kutxak.
- Plastikozko ontzi eta bolitekin apaingarriak.
- Buztina.
- Papiroflexia.
- Makrame korapiloak.
- Paper machéko txontxongiloak eta maskarak.

**Oharra:** DBH1 edo DBH2n egin ahal izango da, ez bietan.



## ASMAKIZUN ETA MAKINEN TAILERRA

---

### **Ikasgaiaren deskribapen laburra**

Makina eta asmakizun tailerra nagusiki praktikoa da eta, bere funtsa sentiberatasun teknologiko eta artistikoa garatzea da. Tailerreko tresna eta makinaren erabilera zuzena egiten ikasiz, eta material ezberdinak erabiliz, emaniko arazo-egoerei konponbidea era sortzaile batean emango diete. Proiektuen-metodoa eta objektuen-analisia izango dira metodologia ardatzak.

### **Eduki esanguratsuenak**

- Asmakizunak eta asmatzaileak historian zehar.
- Tailerrezko oinarrizko eragiketak.
- Proiektuen- metodoa.
- Ideien adierazpena (adierazpen grafikoa, ahozko eta idatzizko adierazpena).
- Makinak eta mekanismoak.
- Elektrizitate eta magnetismoa.

**Oharra:** DBH2 edo DBH3n egin ahal izango da, ez bietan.

## MATEMATIKA TAILERRA (Indartze tailerra)

---

### **Ikasgaiaren deskribapen laburra**

- Helburua jakintza gai honetan zailtasunak dituzten ikasleei laguntza eskaintzea da.
- Matematika gaien ematen diren edukiak landuko ditugu.
- Matematikako gai batzuetan oztupoak dituzten ikasleen euskarri izan nahi du tailer honek.

### **Eduki esanguratsuenak**

Matematika gaien lantzen diren gaiak landuko ditugu sekuentzia berean eta aldi berean.

**Oharra:** DBH1 edo DBH2n egin ahal izango da, ez bietan.



## KOMUNIKAZIO TAILERRA

---

### **Ikasgaiaren deskribapen laburra:**

Jakina da komunikazioa oinarrizko tresna dela gure gizartean, gure eguneroko bizitzan funtsezko rola betetzen duena eta hezkuntza esparruan gure ikasleek ezinbesteko dutena. Ideiak, sentimenduak eta informazioa elkarri helarazteko ahalmena du, eta horrek elkarrizketa, ulermena eta konexioa ahalbidetzen ditu.

Komunikazio asertiboak pertsonen arteko harremanak sendotzen ditu eta taldekako lana sustatzen. Hutsune hori betetzera dator ikasgai hau: ikasleen ahozko eta idatzizko erabilera suspertu, sendotu eta bultzatzera, hain zuzen ere.

### **Eduki esanguratsuenak**

- Asertibitatea, enpatia eta komunikazio ez-bortitza: zer esan nahi dut eta nola esan nahi dut?
- Hitzezko komunikazioa.
- Idatzizko komunikazioa.
- Gorputz adierazpena.

**Oharra:** DBH1 edo DBH2n egin ahal izango da, ez bietan.

## BARATZE TAILERRA

---

### **Ikasgaiaren deskribapen laburra:**

Baratze tailerrak ahal den praktikoena izan nahi du, eta eguraldia oztopoa denean lorezaintza landuko dugu ikastetxeko laborategian.

Baratzearen sekretuak ezagutuko ditugu, landareen hazkuntza eta zaintza.

Talde-lanak garrantzia handia du eta hori bultzatuko dugu. Jasotako uzta ikasleen artean banatuko da eta etxera eramango dute.

### **Eduki esanguratsuenak**

- Landareen ezaugarriak eta ugaltze motak ezagutzea.
- Urtaro bakoitzeko barazkien sekretuak ezagutzea eta hauek landatzea.
- Nekazaritzan landareak ugaltzeko erabiltzen diren metodoak ezagutzea.
- Baratzean lana egiteko tresneria eta segurtasuna.
- Baratzerako konposta egitea.
- Baratzean lagungarriak diren landareak gaitzak edota izurriteak kontrolatzeko.
- Etxeko landareak erein edota aldaxken bidez ugartu.